

OSASUN-LAGUNTZARAKO NORTASUN-AGIRIAREN JAKINARAZPENA

ESKAERA BETETZEKO ARGIBIDEAK

Noiz aurkez dezakezu jakinarazpen hau?

Onuradunen nortasun-agiria (NAN edo AIT) aurkeztu nahi denean, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren osasun-laguntzako datu-basean sartzeko, 14 urtetik beherakoak izan arren.

Onuradunen nortasun-agiria (NANa edo AITa) nahitaez eman behar den unetik jakinarazi **behar** zaio erakunde honi (NANa 14 urte betetzean/AITa Espainian bizitzen hasi zenetik), Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren osasun-laguntzako datu-basean sartzeko.

Garrantzitsua: onuradunen AITa NANarekin aldatzea eskatu nahi baduzu, eskaera Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusira bidali beharko duzu.

Nola bete behar duzu eskaera hau?

Osasun-laguntzaren titularrak egin beharko du eskaera. Eskatzaileak 2. orrialdean sinatu behar du eskaera.

Honako hauek bete beharko ditu beti:

- Titularraren (eskatzailearen) datuak, I. ESKATZAILEAREN DATUAK atalean jasoko direnak. Nolanahi ere, eskaera aurkezten duen pertsonak 2. orrialdean sinatu beharko du hori, bai bere izenean, bai ordezkaten duen hirugarrenaren izenean (ordezkaria, ahalordetzeen erregistro elektronikoa inskribatutako ahalduna edo desgaitasuna duten pertsonen laguntzeko neurriak ematen dituen pertsona).
- Nortasun-agiria aurkeztu zaien onuradunen datuak jasoko dira II. atalean. ONURADUNEN DATUAK.

Aurkeztu beharreko dokumentuak

Eskatzailearen nortasuna dokumentazioaren bidez egiaztatzea:

- Espainiarrak:** Nortasun Agiri Nazionala (DNI)
- Atzerritarrik:** Atzerritarren identitate-txartela (AIT) edo, behar denean, pasaporte edo bere herrialdean indarrean dagoen nortasun-agiria.
- Eskaera desgaitasuna duten pertsonen laguntzeko neurriak ematen dituen pertsona batek aurkeztu badu, dagozkion egiaztagiririk. Egiteko zaintzailearen kasuan, errolda-ziurtagiria edo bizikidetzaren egiaztatzen duen dokumentazioa; kuradore/defendatzailearen kasuan, ebazpena judiziala.
- Ordezkaritza egiaztatzeko dokumentazioa. Ahalordetzeen erregistro elektronikoa inskribatutako ahaldunek ez dute egiaztagiririk aurkeztu behar.

Onuradunen nortasuna dokumentazioaren bidez egiaztatzea:

- Espainiarrak:** Nortasun Agiri Nazionala (DNI)
- Atzerritarrik:** Atzerritarren identitate-txartela (AIT)

Alegazioak

Zure eskaera izapidetzeko garrantzitsutzat jotzen duzun eta inprimakian jasota ez dagoen zerbait gehitu nahi baduzu, jaso ezazu ahalik eta laburren eta zehatzen III. atalean. ALEGAZIOAK.



NORTASUN AGIRIAREN GAINEKO JAKINARAZPENA ASISTENTZIA SANITARIOAREN XEDEETARAKO

Izapide hori Gizarte Segurantzaren Egoitza Elektronikoren bidez (<https://sede.seg-social.gob.es>) eska dezakezu, ziurtagiri digitalarekin edota Cl@ve iraunkorarekin. Identifikazio elektronikorako sistemarik ez baduzu, izapidea <https://run.gob.es/tramites> helbidean egin ahal izango duzu, edo sinatutako ale bat aurkeztu ahal izango duzu posta arrunta erabiliz. Presentzialki ere egin ahal izango duzu izapidea, Gizarte Segurantzaren Arreta- eta Informazio-zentro batera joanda, 901 10 65 70 / 91 541 25 30 telefono-zenbakietan edo <https://run.gob.es/trdcita> helbidean aurretiko hitzordua eskatu ondoren.

I. ESKATZAILEAREN DATUAK

Lehen abizena		Bigarren abizena		Izena				
Jaiotza-data		Sexua		Egoera Zibila				
NAN / ANZ / Pasaporte			Nazionalitatea					
Ohiko helbidea (kalea, plaza, etab.)				Zenb.	Blokea	Eskail.	Sol.	Atea
Posta Kodea	Udalerrria		Probintzia		Herrialdea			
Telefono finkoa	Telefono mugikorra	Posta elektronikoa						

II. ONURADUNEN DATUAK

	1. Onuraduna	2. Onuraduna	3. Onuraduna	4. Onuraduna
Lehen abizena				
Bigarren abizena				
Izena				
NAN-ANZ				
Jaiotza-data				
Ahaidetasuna / titularra eta bere arteko lotura				
Beste gurasoaren izena ⁽¹⁾				
Kontaktu telefonoa				

(1).- Ahaidetasuna "seme-alaba" denean, beste gurasoaren izena idatziz jasoko da.

III. ALEGAZIOAK

--

ADIERAZTEN DUT egiazkoak direla eskaera honetan adierazitako datuak.

Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak zure baimena eskatzen du eskaera honetan emandako telefono mugikorra, posta elektronikoa eta kontaktu datuak erabiltzeko, Gizarte Segurantzaren jakinarazpenak zuri helarazteko.

- BAI ematen dut baimena**
- EZ dut ematen baimena**

2022/04/26

C-179_eus V.2

DATU PERTSONALEN GAINEKO OINARRIZKO INFORMAZIOA	
ARDURADUNA	Gizarte Segurantzako Institutu Nazionala (INSS)
HELBURUA	INSS-en eskumeneko Gizarte Segurantzako Sistemaren prestazio kudeaketa
LEGITIMAZIOA	Botere publikoen betearazpena
HARTZAILEAK	Soilik burutuko dira legez aurreikusitako emakidak eta transferentziak edo zure baimenarekin kontaktzen dutenak.
ESKUBIDEAK	Datuak eta beste eskubide batzuk eskuratu, zuzendu edo ezabatzea, informazio gehigarrian azaltzen den bezala
JATORRIA	Datuak biltzen ditugu beste administrazio eta erakunde batzuetatik legez aurreikusitako terminoetan
INFORMAZIO GEHIGARRIA	Informazio gehigarri eta zehatza kontsultatu ahal duzu formulario honetan erantsitako informazio-orrian, honako atalean: "DATU PERTSONALEN BABESAREN GAINEKO INFORMAZIO GEHIGARRIA"

....., 20..... ko ren (e)an

Eskatzailearen sinadura

DATU PERTSONALEN BABESARI BURUZKO INFORMAZIO OSAGARRIA

TRATAMENDUAREN ARDURADUNA	<p><i>Nor da zure datu pertsonalen tratamenduaren arduraduna?</i></p> <p>Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionala Padre Damián 4 PK 28036 Madril, ESPAINIA https://sede.seg-social.gob.es</p>
DATUEN BABESAREN ORDEZKARIA	<p><i>Nola jar gaitzke harremanetan datuen babesaren ordezkariarekin?</i></p> <p>Gizarte Segurantzako Zerbitzu Juridikoaren zuzendaritza Infanta Mercedes, 31 - 3^a Solairua PK 28020 Madril, ESPAINIA https://sede.seg-social.gob.es</p>
TRATAMENDUAREN HELBURUA	<p><i>Zertarako erabiltzen ditugu zure datuak?</i></p> <p>Zure datuak eskaera hau ebazteko, eta hala badagokio, aitortutako prestazioa kudeatzeko helburu nagusiarekin tratatuko dira.</p> <p>Zure harremanetarako datuak tratatzearen helburua jakinarazpenak egitea eta Gizarte Segurantzaren inguruko informazioa bidaltzea izango da.</p> <p>Emandako datu pertsonalak zure prestazioa kudeatzeko beharrezkoak diren bitartean gordeko dira, edo bere onuradunenak; baita beste helburu batzuetarako ere: artxibatzea, estatistika publikorako.</p>
TRATAMENDUAREN LEGITIMAZIOA	<p><i>Zer da zure datuen tratamendurako legitimazioa?</i></p> <p>Datuen tratamendua legezko arau batek baimendutako botere publikoen erabilera oinarrituz egingo da (Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bategina, GSLOTB aurrerantzean, onartzen duen urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 66., 71., 72. eta 77. artikulua eta horrekin bat datozenak; 16/2003 Legearen 3 bis. artikulua, maiatzaren 28koa, Osasun Sistema Nazionalaren kohesio eta kalitateari buruzkoa; Sendagaien eta osasun produktuen bermei eta erabilera arrazionalari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen uztailearen 24ko 1/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 103. artikulua).</p> <p>Jakinarazpenei eta Gizarte Segurantzaren inguruko informazioen bidalketari dagokionez, tratamendua baimenaren bidez legeztatuko da. Baimenik ez baduzu ematen, ezin izango duzu jaso mota honetako bidalketak, hala ere, zure eskaeren egoerari buruzko informazioa eman ahalko dizugu kanal horien bidez. Horrez gain, jakinarazten dizugu ez duzula zure helbide elektronikorik eta telefono mugikorren zenbakirik eman behar, eta ez badiguzu ematen, zure eskaera izapidetzen jarraitu ahalko duzula.</p>
LAGAPENEN EDO TRANSFERENTZIEN HARTZAILEAK	<p><i>Nori jakinaraziko dizkiogu zure datuak?</i></p> <p>Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalak bere eginkizunetan lortutako datu pertsonalak erreserbatuak dira, eta legez agindutako helburuetarako bakarrik erabiliko dira. Ezin zaie hirugarrenei laga edo jakinarazi, horren helburua GSLOTBren 77. artikuluan berariaz ezarritako kasuren bat bada, edo beste edozein lege-arautan adierazitako kasuren bat bada.</p> <p>Nazioarteko araudian oinarritutako eskaera bat bada, zure datuak zure eskaera izapidetzeko eskumena duten atzerriko erakundeei laga ahalko zaizkie.</p>
INTERESDUNEN ESKUBIDEAK	<p><i>Zein dira zure eskubideak zure datu pertsonalak ematen dizkiguzunean?</i></p> <p>Emandako datu pertsonalei dagokienez, edozein unetan eta datuen babesari buruzko araudiak ezarritako baldintzetan erabil dezakezu datu horiek ikusteko, zuzentzeko, ezabatzeko, mugatzeko eta aurka egiteko eskubidea, edo tratatzeko baimena ken dezakezu hala eskatu den kasuetan. Hori guztia, idazki bat aurkeztuz Gizarte Segurantzaren Arreta eta Informazio Zentro batean (CAISS), edo postaz, edo Gizarte Segurantzaren egoitza elektronikoen bidez, Datuen Babeseko Ordezkararen aurrean. Datu horiek taula honen bigarren atalean daude.</p> <p>Jakinarazten dizugu zure eskaerari modu egokian ez diogula erantzun uste baduzu, erreklamazio bat aurkez dezakezula Datuen Babeserako Espainiako Agentziaren aurrean.</p>
JATORRIA	<p><i>Nola lortzen ditugu zure datu pertsonalak?</i></p> <p>Zure eskaeran emandako datuez gain, beste administrazio eta erakunde batzuetatik beste datu pertsonal batzuk biltzen ditugu, arautegia betez, administrazio-jarduera arintzeko eta errazteko. Datuetarako sarbide horiek lege-maila duten arauak babesten dituzte.</p>